

M1

Aldaketa da aukera! por un cambio de rumbo

*Zaintza, lana,
piztza, herria!*

Pandemiak azkartu egin du lehendik zetorren krisia: larrialdi klimatikoa, energia iturri eta materialen agortzea, lehia inperialista, migrazio mugimendu masiboak, zaintza sistemaren gabeziak, enplegu suntsiketa. Sistema hau, bidegabea ez ezik, eutsiezina ere bada. Aldaketa ekidinezina da, hala nazioartean nola Euskal Herrian, baina afera da: aldaketa nork eta zertarako?

Europako funtsekin ikusi den bezala, kapital trasnazionalak energia iturriak ordezkatu besterik ez du nahi, bere etekinei eusteko asmoz; horixe da estatuak nahiz bertako instituzio nagusiak kudeatzen dituzten alderdi sistemikoen hartutako bidea. Aldiz, Euskal Herrian badago bigarren aukera baten aldeko esparru sozial, sindikal eta politiko zabala: herri burujabetzan sakondu eta bizitza erdigunean jarriko duen eredu berri baterako trantsizio ekosozialista eta feminista.

Izan badugu aukera norabidea aldatzeko, antolatu eta borrokatuz gero. Milaka gara horretan ari garenak, azken hilabeteotan nabarmendu denez. Zaintza sistema publiko komunitarioa, eta oro har, zerbitzu publiko sendoak aldarrikatzeko grebak egin ditugu. Eskualdez eskualde enplegua defendatzeko herri harresia osatzen ari gara. Prekaritatearen kontrako borroka pizten ari gara. Eta pentsio duinen alde mobilizatzen ari gara astelehenero.

Maiatzaren Lehenean bultzada emango diogu borroka aldi berri honi. Beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuta, kaleak hartuko ditugu eskualdez eskualde. Elkarzaintza, elkartasunez jokatzeko eta elkarrekin mobilizatzea da bidea!



LAB

M1

Aldaketa da aukera! por un cambio de rumbo


*Zaintza, lana,
piztza, herria!*

La pandemia ha acelerado la crisis que ya venía de antes: emergencia climática, agotamiento de fuentes y materiales energéticos, competencia imperialista, movimientos migratorios masivos, deficiencias del sistema de cuidados, destrucción de empleo. Este sistema, además de injusto, es insostenible. El cambio es inevitable, tanto a nivel internacional como en Euskal Herria, pero la cuestión es: ¿quién materializa el cambio y para qué?

Como se ha visto con los fondos europeos, el capital transnacional no pretende otra cosa que sustituir las fuentes de energía con el fin de mantener sus beneficios, que es el camino tomado tanto por los estados como por los partidos sistémicos que gestionan las principales instituciones. En cambio, en Euskal Herria existe un amplio espacio social, sindical y político a favor de una segunda opción: la transición ecosocialista y feminista hacia un nuevo modelo que profundice en la soberanía popular y ponga la vida en el centro.

Tenemos la oportunidad de cambiar de rumbo si nos organizamos y luchamos. Somos miles las personas que estamos en ello, según ha quedado reflejado en los últimos meses. Hemos hecho huelgas para reivindicar un sistema público comunitario de cuidados y unos servicios públicos sólidos, en general. Estamos formando, eskualde a eskualde, un muro popular para defender el empleo. Estamos promoviendo luchas contra la precariedad. Y estamos movilizándonos todos los lunes a favor de pensiones dignas.

El Primero de Mayo daremos impulso a este nuevo periodo de lucha. Tomando las medidas de seguridad necesarias, tomaremos las calles por eskualdes. ¡Cuidarse mutuamente, actuar solidariamente y movilizar-se juntas y juntos es el camino!



LAB